

«Sakondu beharreko bidea»

Herri Mugimenduen I. Topagunearen ondoren, lanean ari da jadanik sortutako talde eragilea.

Egoeraren diagnostikoa egiten hasi dira, baina ez dute horretan geratu nahi: pauso praktikoak ere eman nahi dituzte.

Duela 20 egun herri mugimenduetan dabiltzan 100 bat lagun bildu ziren Donostiako Egia auzoko Kultur Etxean, Herri Mugimenduen I. Topagunean, eta han lehenengo harria paratu zuten herri mugimenduen arteko elkarlana abiatzeko.

Lan horretarako talde eragile bat sortu zuten, eta lanean ari da jadanik. Joxemi Zumalabe Fundazioko Mikel Aznar eta Olatz Altuna eta Zai-Zoi Egiako herri mugimenduen koordinakundeko Ainhoa Permach talde eragileko kideak dira. EGUNKARIA beraiekin izan da abiatu duten prozesuaren eta etorkizuneko erronken nondik norakoak argitze-ko.

Talde eragilea 20 bat lagunek osatzen dute, eta dagoneko lehen bilera egina dute, Topagunearen balantzea egiteko. Taldean euskalgintzako kideak, antimilitaristak, gazte mugimendukoak, internazionalistak, irakaskuntzakoak, eta beste hainbat alorre-ko kideak ari dira.

Hil honen bukaeran egin nahi dute bigarren bilera, herri mugimenduaren egoerari buruzko diagnostikoa diseinatzen hasteko. Horretarako, hainbat ideia jaso zituzten topagunean, eta ideia horiek garatu eta gorpuzten hasi behar dute orain, diagnostikoa gauatzeko. Hala nola herri mugimenduen sarea sortzearen proposamena, instituzioekin nolako harremana izan behar duten, herri mugimenduaren definizioa, lan sozial eta politikoaren arteko elkarlana, euskara, nazioaren definizioa...

Hala ere, ez dute maila teorikoan geratu nahi, eta praktikan eragin nahi dute. Horretarako dinamika zenbait bultzatu nahi dituzte eremu praktikoan, zer dinamika eta nola bultzatuko dituzten oraindik zehaztu ez duten arren.



Olatz Altuna
eta Mikel
Aznar
Joxemi
Zumalabe
Fundazioko
kideak, eta
Ainhoa
Permach,
Zai-Zoikoa.

GARI GARAIALDE

Elkarlanaren filosofia

Topagunea antolatu zutenean, denek nabarmendu zuten arazo bat: herri mugimenduen arteko koordinazio eza, dispersioa.

Horri aurre egiteko lehen pausoa izan zen Topagunea, elkarlan dinamika baten lehenengo adibide praktikoak, Mikel Aznarrek dioenez. Ildo horretan, eredu-garritzat jotzen dute Zai-Zoi koordinakundeak Donostiako Egia auzoan egiten duen lana. Ainhoa Permachek dioenez, «Zai-Zoin herri mugimendu erabat desberdinak biltzen dira. Badakigu askotan zail dela elkarlana aurrera eramatea, baina hainbat elementuk behartzen gaituzte indarrak batzera, ahalik eta etekin handiena ateratzeko, azkenean batzeak ematen duelako indarra».

Azken finean, gizarte neoliberalaren «astinduak» gizarte osoak pairatzen dituela diote talde eragileko kideek, eta

Topagunea, «esperientzia positiboa»

HERRI MUGIMENDUAREN I. Topagunearen balantzea ezin hobea izan dela diote talde eragileko hiru kideek. Olatz Altunaren irudikoz, «balantzea oso positiboa da. Jendea oso gustura geratu zen. Elkar ezagutze-ko espazio egokitzat hartu zen, eta aurrera begira ere interesgarritzat jo zuten». Mikel Aznarrek Topaguneak lortu zuen zabalatasuna azpimarratu du, alor oso diferenteetako herri mugimenduetako kideak izan zirelako egun bateko jardunean. Gainera, egun horretan egin ziren aportazioak «oso in- struktibo» eta baliagarritzat jo zituzten. Herri mugimenduen egoeraren diagnosti- koa egiteko oinarritzat hartu dituzte maia- tzaren 15ean ateratako aportazioak.

«eraso orokor» horri erantzun orokorrak eman behar zaizkiola. Aznarren esanetan, Topagunean batzuek zioten gaur egun *Hamburgesaren Politika* bultzatzen ari dela. «Politika hori orokorra den arren, guk modu partzial batean bizi dugu. Horrek dakar bere eragina izugarritzakoa izatea. Horregatik, kontua da ea elkarlan ardatz orokorra sor dezakegun errealtate orokor horri aurre egiteko. Izan ere, sistemak aurrera egiten duen

heinean, ondorioak denok pairatzen ditugu».

Bestalde, Topagunea izan zen egunean herri mugimenduen egoeraren inguruan iritzi kontrajarriak agertu ziren. Batzuen iritziz, herri mugimendua inoizko sasorik onenean dago egun. Besteen irit- tiziz, berriz, garairik onenak —Lemoiz, antimilitarismoa...— joanak dira eta herri mugimenduen indarra inoiz baino txikiagoa da. Mikel Aznarren iritiz, bi iritzi

Hala ere, hobetzeko hainbat kontu dau- dela onartu dute talde eragileko kideak. Ainhoa Permachen hitzetan, «hurrengo topagunea antolatzen denean prozesuari garrantzi gehiago eman behar zaio. Sumatu ditugu hainbat hutsune eta horiek zuzen- tzen saiatu behar dugu hurrengoan. Adibi- dez, eztabaida bideratzeko hainbat gai aurretik zabaltzea parte hartzaileen artean eztabaida lehenago pizteko». Horrez gain, eztabaida emankorragoa egiteko batzar bakarra egin beharrean talde txikiak egite- aren aukera aipatu dute.

Halaber, I. Topagunea egun batekoa izan zen, eta hurrengoak egun bat baino gehiago irautearen aukera ere aztertuko dute.

horietan badira egia diren elementuak. Hala ere, bere esanetan, diagnostikoak ezin du hain itxia izan, errealtate- konplexua baita. «Batetik, nabarmena da herri mugimenduak sekulako poten- tzialitatea duela, eta horrek ibilbide historiko bati eran- tzuten dio; bestetik, ikusten dira gauza kezagarriak eta hobetu beharrekoak».

Iñaki Petxarroman
DONOSTIA